



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENSA OHARRA

Herri Lan eta Garraioetako Batzordea

Batzar Nagusiek proposatu dabe Ertzaintzak laguntzea emon dagiala Txorierriko Korridoreko Derioko urteerako “bide-segurtasunaren” hobekuntzan

- Era berean, Herri Lan eta Garraioetako Batzordeak onartu dau Foru Aldundiak Loiuko bidegurutzan (Asuako zuzengunean) egoten diran pilaketak konpontzea eta oinezkoentzako pasabide bat ipintea Egirletako mendatean. Bizkaiko Talde Popularrak (PP) aurkeztutako Arauz Besteko hiru Proposamenek Euzko Abertzaleak (PNV) eta Euskal Sozialistak (PSE) taldeen babesari euki dabe, eta Bilduren abstentzinoa.

Bilbon, 2012ko abenduaren 20an

Herri Lan eta Garraioetako Batzordea gaur goizean bildu da, goizetan “trafiko arazoak” eukiten dabezan Bizkaiko bide-sareko bi punturi konponbideak topetako. Txorierriko Korridoretik Deriorantz eta Zamudiorantz urteteko bidea da puntu horreetako bat, eta, bestea, Loiuko udaletxearen ondoko bidegurutzeta, Loiu eta Asua lotzen dauzen bidean. Jesús Isasi PPko ahalduak azaldu dauenez, konponbidea izango zan, lehenengo kasuan, Ertzaintzak “laguntzea emotea” trafikoa arintzeko, eta, bestetik, Foru Aldundiak Loiu saihebidetako proiektua “azkartzea”. Talde batzarkide guztiek, abstentzinoaren alde egin dauen Bilduk izan ezik, bi ekimenak babestu dabez, ñabarduraren bategaz.

Txorierriko Korridoretik Deriora eta Zamudioko Teknologia Elkartegira joateko aukerea emoten dauen “errei bakarreko” urteeraren kasuan, Batzordeak popularren ekimena babestu dau, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko (orain, Segurtasun Saila) agenteek “trafikoa arindu” dagien 07:30etik 09:00etara. PNV, PSE eta PPren ordezkariak bat etorri dira, esaterakoan proposatutako neurria –Euskadiko exekutibo barriari bialdu beharko jako Aldundiaren bitartez– ez dala behin betiko konponbidea, baina balio ahal dauela BI-637 eta BI-631 errepideen arteko konexino honetan egoten diran “pilaketak arintzeko”, egoera ekonomikoak “pilaketak” desagerrarazoteko aukerea emoten ez dauen bitartean (bideen arteko lotura honen diseinua aldatuz). Bilduren arabera, konponbide hori “adabaki bat gehiago” da. Arazoaren jatorria “plangintza txarra” eta oraingo “mobikortasun eredia” dira. Txorierriko Korridorearen kasuan, Aitor Torre bozeramaileak uste dau konponbidea “autoak kentzera” egon behar dala bideratuta. Horretarako, garraio publikoa hobetzea, enpresentzako baliabide kolektiboak ezartzea edo bidegorriak sortzea proposatu dau.

Pilaketa “luzeak” daukazan beste errepide bat –popularren arabera– Loiuko udal mugartea zeharkatzen dauena da. Euren ekimena PNV eta PSEren babesari esker onartu da, eta, horren bitartez, 2013ko ekitaldian “konponbidea” topatu beharko litzateke, udaletxetik hur dagoan semaforoan sortzen diran “kilometro leko ilarak” desagerrarazoteko. Modu horretan, proiektua berreskuratu eta saihebidetako erregiko litzateke, Asuako zuzengunean dagoan gasolindegitik abiatuta. Egoera ekonomikoaren ondorioz, konponbide hori, “aurreikuspenen arabera, ezin izango da epe laburrean egin”, eta, ondorioz, Jon Larrea PNVren ordezkariak Aldundiak 2008an ipinitako “semaforoak berregokitzearen” alde egin



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

dau. Semaforo horreek balio izan dabe bidegurutze horretan “bakarrik 3 istripu jazoteko”, baina “trafikoaren arintasuna” kaltetu dabe, PPko Jesús Isasiren arabera. Joaquín Colmenero bozeramaile sozialistak eztabaida hau aprobetxau dau, eta eskatu dau “puntu baltzen” Batzordea berreskuratzeko eta arazo honeek “arinago” konpontzeko.

OINEZKOENTZAKO PASABIDEA EGIRLETAN

Azkenik, saioko Arauz Besteko hirugarren Proposamenak babes parlamentario bera jaso dau; bertan, foru exekutiboari eskatzen jakon oinezkoentzako pasabide bat instalatuko Egirletako mendatean, Bizkaiko uriburuko sarbide honetako galtzada modu seguruan zeharkatu ahal izateko alde batetik bestera. Txorierriko Korridorerantz bajatzen dan bide-tarte osoak hormigoizko erdibitzaile bat eukiko dau, eta “beharrezkotzat” jotzen da oinezkoentzako “neurriak hartzea”. PPk zuzenketa sozialista bat onartu dau, eregi gura dan pasabidea “bateragarria izan daiten” errepidearen etorkizuneko zabaltze-lanakaz.

Talde batzarkide guztiek onartu dabe oinezkoentzako egiturea “ez dala behin betiko konponbidea”, baina, behintzat, auzokideek lau erreiko errepide bat zeharkatzeak dakarzan arriskuei amaiera emongo jakela. Halanda be, Bilduk zalantza agertu dau “gehegizko kostua” daukan azpiegitura bat instalatari jagokonez –2 milioi euro, gitxi gorabehera–, azpiegitura horren benetako eskaerea zein dan jakin barik. “Neurri desorekatua iruditzen jaku”, esan dau Aitor Torrek. PNV eta PSE bat etorri dira PPgaz, esaterakoan etorkizuneko konponbidea errepidea handitzea dala, proiektu horren barruan oinezkoentzako pasabidea instalatea dagoalako. Baina hori “ezin izango da berehala egin”, esan dau Nerea Ahedo ahaldun nazionalistak, aurrekontua estua dalako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Comisión de Obras Públicas y Transporte

Las Juntas Generales proponen que la Ertzaintza colabore en la mejora de la “seguridad vial” en la salida a Derio del Corredor del Txorierrri

- La Comisión de Obras Públicas y Transporte ha aprobado también que la Diputación foral elimine las retenciones que se producen en el cruce con semáforo de Loiu existente en la recta de Asua e instale una pasarela peatonal en el Alto de Santo Domingo. Las tres Propositiones No de Norma presentadas por el Grupo Popular Vizcaíno (PP) han recibido el apoyo de Nacionalistas Vascos (PNV) y Socialistas Vascos (PSE), y la abstención de Bildu.

Bilbao, a 20 de diciembre de 2012

La Comisión de Obras Públicas y Transporte se ha reunido esta mañana para buscar soluciones a dos puntos de la red viaria vizcaína que sufren “problemas de tráfico” a primeras horas de la mañana. Se trata de la salida hacia Derio y Zamudio desde el Corredor del Txorierrri y del cruce existente junto al edificio consistorial de Loiu que conecta este municipio con Asua. La solución, según ha explicado el apoderado del PP Jesús Isasi, radica en que la Ertzaintza “colabore” para agilizar el tráfico en el primer caso, y en que la Diputación foral “agilice” el proyecto de construcción de una variante en Loiu en el segundo. Todos los grupos junteros, a excepción de Bildu que se abstenido, han apoyado con algún matiz las dos iniciativas presentadas por el Grupo Popular Vizcaíno.

En el caso de la salida del Corredor del Txorierrri -“de un solo carril y con 18.000 vehículos diarios”- que permite dirigirse a Derio y al Parque Tecnológico de Zamudio, la Comisión ha apoyado la iniciativa de los populares para que efectivos del departamento de Interior del Gobierno Vasco (ahora Seguridad) favorezcan la “fluidez del tráfico” entre las 7.30 y las 9.00 horas. Los representantes del PNV, PSE y PP en la comisión parlamentaria han coincidido en señalar que la medida propuesta –que deberá ser remitida al nuevo ejecutivo vasco a través de la Diputación- “no es la solución definitiva”, pero podría servir para “ paliar los atascos” que se producen en esta conexión entre la BI-637 y la BI-631, a la espera de que la situación económica permita eliminar las retenciones modificando el diseño de este nudo viario.

Sin embargo, para Bildu la solución planteada es un “parche más”. El origen del problema es la “mala planificación” y el “modelo de movilidad” existente. En el caso del Corredor del Txorierrri, su portavoz Aitor Torre cree que la alternativa debe ir enfocada a “quitar coches”. Para ello, ha propuesto otro tipo de actuaciones como mejorar el transporte público, implantar medios colectivos para empresas o construir “bidegorris”.

Otra carretera que -según los populares- sufre también “largas” retenciones es la que cruza el término municipal de Loiu. La iniciativa del PP, aprobada gracias al apoyo del PNV y el PSE, busca que en el



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

próximo ejercicio 2013 se dé una “solución” para eliminar las “colas de 1 kilómetro” que se generan en el semáforo cercano a la casa consistorial, recuperando el proyecto para construir una variante que partiría de la gasolinera existente en la recta de Asua. Como esta solución “no es previsible que se pueda acometer a corto plazo” debido a la coyuntura económica, el representante del PNV Jon Larrea ha apostado por “readecuar los semáforos” instalados por la Diputación en el año 2008 que han servido para que “sólo se produzcan 3 accidentes” en este cruce, aunque hayan perjudicado la “fluidez del tráfico”, según Isasi. El portavoz socialista Joaquín Colmenero ha aprovechado el debate para pedir la recuperación de la Comisión de “puntos negros” y solucionar estos problemas de forma “más rápida”.

PASARELA PEATONAL EN SANTO DOMINGO

Por último, el mismo apoyo parlamentario ha recabado la tercera Proposición No de Norma de la sesión en la que se solicitaba al ejecutivo foral la instalación de una pasarela peatonal en el Alto de Santo Domingo, con la que se pueda cruzar, de forma segura, de un lado a otro de la calzada. El tramo de bajada hasta el corredor del Txorierra contará en todo su recorrido con una mediana de hormigón y se hace "necesario adoptar medidas" para los viandantes, según el PP. Este grupo ha aceptado una enmienda socialista para que la pretendida pasarela “sea compatible” con el futuro desdoblamiento de la carretera.

Todos los grupos junteros han coincidido en que la estructura peatonal “no es la solución definitiva”, pero podría poner fin a los riesgos derivados de que los vecinos crucen una carretera que cuenta con cuatro carriles. Bildu ha mostrado, sin embargo, sus dudas ante la instalación de una infraestructura que podría contemplar un “coste excesivo” para las arcas forales– unos 2 millones de euros – sin conocer todavía cuál es la demanda real. “Nos parece una medida descompensada”, ha dicho Aitor Torre. El PNV y el PSE han coincidido con el PP en que la solución, a futuro, pasa por construir el desdoblamiento de la carretera, en cuyo proyecto se incluye la instalación de una pasarela peatonal. Sin embargo, “no podrá ser abordado de forma inmediata”, ha advertido la poderosa nacionalista Nerea Ahedo, debido a las estrecheces presupuestarias.